





ENARAREN AMETSAK



1. ZIKLOA

Truchez familia

2009-10

GAIA: EKITATEA

Kaixo, lagunok, zer moduz zaudete?

Zaida Silvestre da nire izena. Espainiako hegoaldeko marmoka

bat naiz, Andaluziakoa, eta gaur Truchez familiaren istorioa kontatu nahi dizuet.

Truchez familia ibaiko amuarrain-familia bat zen,

egun batean bizitza hobe baten bila itsasora bidaiatzeko ausardia izan zuena.

Pozten naiz zuek ezagutzeaz, eta guztiok batera une atsegina igarotzea espero dut.

Truchez familiarekin uzten zaituztet!



Fasea 1: Aurkezpena

LIRAIN AMUARRAIN GAZTEA


Aintzira Berdearen kondairak dioenez, bazen behin Lirain izeneko amuarrain bat. Amuarrain hark itsaso zabalera bidaiatu zuen, bere familiarekin batera . Inork ez daki zehatz-mehatz nola gertatu zen, baina, diotenez, ur-eskasiak eragindako egoera latzak bultzatuta, bizi ziren lekutik alde egin behar izan zuten amuarrain gazte ausartak eta bere familiak. Inguru hartan bizi ziren pertsonen jardueraren ondorioz, leku hura lokaztuta zegoen, eta ibaian bizitzea gero eta zailagoa zen. Lirainen amari tristura handia ematen zion ibaia uzteak, bizitza osoa han eman baitzuten, baina egun batean Trúchez aitari esan zion leku hobea aurkitu behar zutela bizitzeko eta haien 4 seme-alabak zaintzeko.

Malkotxo beti oso triste egon ohi zen, eta haren bekainek /.\ forma hartzen zuten zerbaitek atsekabea eragiten zion bakoitzean.

Muturbeltzoso haserrekorra zen, eta beti aurkitzen zuen arrazoiren bat pixka bat haserretzeko; orduan . forma hartzen zuten haren bekainek.

Haudabeldurra berehala beldurtzen zen: edozein hotsekin korrika egiten zuen ihesi, aurrena ikusten zuenaren atzean ezkutatzera. Haren bekainen forma (..) zen.

Lirain :) alai-alai zen. Sabelak mina eman arte barre egitea gustatzen zitzaion, eta euli txiki bat igarotzeak berak ere barre-algara eragiten zion.



Lirainen familia oso zoriontsua izan zen ordura arte bizi izandako ibaiaren zati hartan, zailtasunak iritsi ziren arte. Izokinak askotan hitz egin zien urrutiko Ozeanoari buruz. Ozeanoan guztientzako jana omen zegoen, eta hobeto bizitzeko aukerak aurkitu omen zitzaizkion han. Lirainen aitak eta amak hara bidaiatzea pentsatu zuten.

Egun eta gau askotan hitz egin zuten. Paseatu egin zuten. Elkar besarkatu zuten...

Lirainek urrutitik begiratzen zien, eta ez zuen ulertzen zergatik zeuden hain triste Ozeanora bidaiatu beharrik. Bera leku hura ezagutzeko irrikatan zegoen, eta irribarre egiten zuen lagun berriak, leku berriak, musika berriak... irudikatzean.

Gau batean, bere gurasoek, oso triste, hartutako erabakiaren berri eman zieten: Ozeanorako bidaiak hasi behar zuten, eta haiengan era bazuen eragina horrek.

Idatziko al diozue ohar txiki bat Trúchez familiari, **agur esateko eta bidaiak ona opa izateko?**

Norbait kanpora doanean zorte ona opa diogu, ezta?


Goizean, Malkotxok, Muturbeltzek, Haudabeldurrak eta Lirainek beren bekainak orraztuak zituzten eta irteteko prest zeuden. Trúchez familiako kideek beren familiakoak eta lagunak agurtu zituzten etxe aurrean, eta berehala albiste onak bidaliko zizkietela hitz eman zieten. Lirainek agur esan zion bere lagunik hoberenari, Malenkoniatsuri. Arrats askotan elkarrekin ikusi zuten eguzkia Aintzira Berdearen atzean ezkututzen.

- Zure falta sentituko dut, Lirain -esan zion lagunak.

-Nik zurea ere bai, Malenkoniatsu, baina laster izango duzu aukera Ozeanora gu ikustera etortzeko, eta Aintzira gainera harritxoak botatzen jarraituko dugu. Ikusiko duzu.

Zilargine dortoka Harri Handiaren alboan zuten zain: bere hegalek indartsuak prestatzen ari zen, haiek Ozeanora eramateko. Igelek korroka egiten zuten ibaiaren ertzetan, eta ehunka arraintxok egiten zuten distira haien inguruan, lehenengo eguzki-izpien azpian. Trúchez familiako amuarrainek Zilargineren eskolari eutsi zioten, banan-banan, eta poliki-poliki beti bizi izan ziren ibaiaren bihurtzetatik aldentzen hasi ziren. Lirainek irribarre batekin begiratzen zion inguru guztiari. Bere lagun guztiak ikusten zituen ibaiaren ertzean, igebelarrak uraren gainean, inguruko landareak, eta pozik sentitu zen han bizi izan zelako;

hala ere, Ozeanoan bizitzeko eta beste leku batzuk ezagutzeko gogoia ere bazuen.



Berehala, ibaiaren bihurgunea urrutiko puntutxo bat bihurtu zen, kanabera batzuen atzean desagertu arte. Kanabera horiek banantzen zuten haien bizilekua ur hotzetatik. Inoiz ez ziren kanaberez haratago joan, eta abentura handi bat zela sentitu zuen Lirainek.

Bat-batean, harri bat erori zen

uretara, hain zuzen ere Zilargineren aurpegi aurrera.

Txooooof

Guztiak harrituta begiratu zioten elkarri.

-Zer gertatu da? -galdetu zuen Haudabeldurrak.

-Ez nago ziur -esan zuen Trúchez amak-. Baina uste dut ibai-karramarroak direla: inguruan arriskuren bat dagoela adierazten ari zaizkigu.

-Ene, hau da beldurra –esan zuen, eta amaren besoen artera joan zen. Bai -esan zuen aitak- arrantzaleak dira. Arrantzan ari dira ibaian.

-Baina, nola liteke? Ez dago eskubiderik! –esan zuen Muturbeltzek.

-Eta hortik igaro behar dugu? -galdetu zuen Malkotxok, ahots meheaz

-Bai, maitea, hortik igaro behar dugu derrigorrez -esan zuen Trúchez amak.

Hari gardeneko kanabera luzeekin arrantzan ari ziren gizon haiei begira geratu zen Lirain. Beldur pixka bat sentitzen zuen, amorru pixka bat ere bai, baita tristura apur bat ere, baina aldi berean pozik sentitzen zen, ataka hartatik ihes egiteko ideia aparta bururatu baitzizaion...

-Ama, aita... ideia bat dut! -esan zuen Lirainek.

-Esan, alaba -esan zion Trúchez aitak.

-Pentsatu dut Zilarginek ibaiaren ertzeraino eraman gaitzakeela, arrantzaleak dauden lekura, arrantzan ari diren lekutik oso gertu; horrela haien hanken aurretik igaro gaitzake, ia uraren gainetik, inolako hotsik atera gabe. Arrainok ibaiaren erdian gaudela uste izango dute, eta inola ere ez dute pentsatuko beraien aurrean gaudenik.

-Ummm... -esan zuen Trúchez amak- ez dago gaizki pentsatuta!

-Bai -esan zuen Haudabeldurrak- baina, hotsen bat ateratzen badugu eta ikusten bagaituzte, zer gertatuko da? Beraiengandik oso gertu egongo garenez, uretatik ateratzeko erabiltzen dituzten tresna horietakoren batekin harrapatuko gaituzte! Niri beldur handia ematen dit.

-Nahikoa da, Haudabeldurra! Bizitza honetan ausarta izan behar da –esan zuen

Lirainek.

Orduan Malkotxok zera esan zuen:

-Eta zer iruditzen zaizue Zilargineren oskolaren azpian ezkutatu eta beste ertzerantz inguratzen bagara? Arrantzaleek ez dituzte dortokak harrapatzen, arrainak baizik, eta ez dute inola ere pentsatuko haren oskol azpian gaudenik.


Trúchez aita eta ama hizketan aritu ziren une batez. Beren bizitzak arriskuan ez jartzeko zer egin erabaki behar zuten.

Fasea 2: A aukera / B a

B. Zilargineren oskolaren azpian azkar igarotzea, susmorik piztu gabe ukera

-Ondo pentsatuta, Malkotxo, arrantzaleen aurretik igaroko gara, Zilargineren oskolaren azpian, inongo hotsik atera gabe -esan zuen Trúchez aitak-. Oso arriskutsua da, baina uste dut ondo aterako dela.

Trúchez familiak eta Zilarginek isil-isilik egin zuten igeri. Hotsen bat ateratzen bazuten arrantzaleen jakin-nahia piztuko zen eta ikusi egingo zituzten. Zilarginek melodia zahar baten doinua jotzen zuen txistuz, erabat lasai zegoen itxurak egiten.



Begira dortoka horri -esan zuen arrantzale batek.

-Non?

-Hor, ez duzu ikusten? Igeri doa ibaiaren beste ertzetik gertu.

-Ah bai... niri gustatzen zaizkit dortokak, zuri ez?

-Nire lagun batek eskumuturrekoak egiten ditu haien oskolarekin, uste dute karei dortokak direla.

-Aizu, nahi baduzu, harrapatu egingo dugu.

-Ederto!

Biak arrantzarako tresnen bila abiatu ziren, baina haien hitzak entzutean, Zilargine azkar-azkar igeri egiten hasi zen, dortoka-espresa bailitzan. Egun horretan munduko errekorra egin zuen Zilarginek, eta azkenean iritsi ziren Koralezko Hesi Handia zegoen aintziretara .

-Oso ondo, Zilargine! Zu nagusi!

Ongietorria egiteko kartel bat ikusi zuten:

“Ongi etorri Ozeanora, paradisu handira”

Koralezko hesi handi batek ixten zien bidea, eta ia berehala Ganba Police deituriko izkira gorrixka batzuk agertu ziren, galderak egitera: zertara zetozen Ozeanora, non hartu behar zuten ostatu, nor ezagutzen zuten, nondik zetozen, “aqua” izeneko zenbat txanpon zituzten (aquak Ozeanoko txanponak dira, eta bolatxo gardenen itxura dute, kristalezkoak ematen dute).

Galdera guzti horiei erantzun ondoren, koralezko hesia zeharkatzea lortu zuten Zilargineren bizkarrean jarrita, eta harrituta begiratu zioten Ozeanoari: oso handia eta polita zen.

Lirainek ezin zuen sinetsi bertan zegoenik. Itsas-kurkuiluei, olagarroei, muskuiluei begiratzen zien –beltz-beltzak ziren, eta arrokei besarkatuta zeuden.

-Zer maitagarriak! -pentsatzen zuen berak. Dena zoragarria iruditzen zitzaion. Ibaiko bizitza hain urrun ikusten zuen.

Zilargine geratu egin zen eta esan zuen:

-Hau da zuen etxe berria. Hemen biziko zarete.

-Hemen? -galdetu zuen Muturbeltzek- baina hemen ia ez dago lekurik eta! Nik ez dut hemen bizi nahi!

-Ikusiko duzu, seme, laster sentituko zara ondo leku honetan... Gure erara dekoratuko dugu, eta orduan etxean bezala egongo zara -esan zion Trúchez amak semeari, besarkada bat emanez.

-Bai, baina Ozeanoa oso handia da, eta galduko naizen beldur naiz- esan zuen Haudabeldurrak.

-Ez larritu -esan zuen Trúchez aitak- gal ez zaitezten kanpaitxo batzuk jarriko ditugu etxe inguruan.

- Nik gure ibaiaren eta gure lagunen falta sentitzen dut -esan zuen Malkotxok.

-Ikusiko duzu, laster egingo dituzu hemen lagun berriak, alaba.

-Baaaai -esan zuen Lirainek. Nik arraintxo berriak ezagutu nahi ditut. Aita, ama, goazen paseatzera, mesedeez, mesedez...

Ozeano Handia bizitzeko leku ezin hobea zen, Lirainen ustez. Berehala jarri zen leku berrira. Han aurki zitekeen ibaiko amuarrain txiki batek amestu zezakeen guztia.

Blue Ocean Avenue-n milaka denda txiki zeuden, eta Lirain orduak eta orduak egon ohi zen haiei begira. Arratsalde batzuetan, Trúchez familia gertuko parke batera joaten zen paseatzera; bertan, itsas-zalditxoek txikienak paseatzera ateratzeko eskaintzen zuten beren burua, acqua batzuen truke. Eguzki-izpirik islatzen ez zen unean, denak batera itzultzen ziren etxera. Orduan, afaltzeko ordua iristen zen. Inguruko bazter guztietatik usain zoragarriak iristen ziren. Liraini gehien gustatzen zitzaion janaria azalorea zen. Bai, bai, azalorea. Azalorearekin amets egiten zuen, eta hura prestatzean ateratzen zen usaina gustatzen zitzaion. Trúchez amari eta aitari ere gustatzen zitzaion hura prestatzea, Malkotxok, Muturbeltzek, Haudabeldurrak eta Lirainek lapikoa irekitzean jartzen zuten aurpegia ikusteko besterik ez bazen ere. Arratsalde batean, etxera iristean, kartel hau aurkitu zuten:

**"Bihar bizilagunen bilera 18etan.
Arrazoa: azalorearen kiratsa."**

- Aj –esan zuen Lirainek– azalorearen usaina, esan nahiko dute.
- Ez, alaba. Usain txarra esan nahi dute. Beraiei ez zaie gustatzen guk jaten duguna, eta esaten dute usain txarra duela, ezagutzen ez dutelako.
- Aaah, eta zergatik ez dute ezagutzen? –galdetu zuen Haudabeldurrak.
- Hemen ez dutelako azalorerik jaten.
- Ez dakite, bada, zer galtzen duten –egin zuen oihu Muturbeltzek.

Trúchez aitak kontatu zien Ozeanoan jendearen ohiturak desberdinak direla, baita janariak ere: janarien formak, koloreak, zaporeak, eta baita haiek prestatzeko moduak ere.

-Noski –esan zuen Lirainek- Hoberena haiek ere azalorea probatzea izango litzateke. Ziur nago, probatuko balute asko gustatuko litzaiekeela!
Bitartean, Muturbeltz oso haserre zegoen, Ozeanoan azalorerik ezin zitekeela



jan pentsatuz, eta marmarka esan zuen:

-Ados nago Lirainekin; proposatzen dizuet azalorea prestatu eta bizilagunen bilerara eramatea. Horrela, probatu egingo dute, eta ziur asko gustatuko zaiela.

Trúchez amak zalantza egin zuen. Ez zuen bizilagunekin arazorik izan nahi, eta jabetzen zen hoberena gehiago azalorerik ez prestatzea izango zela, gatazkarik ez sortzeko.

-Ez, seme, uste dut hobe dela gure azalre goxoa ahaztu eta bakean bizardzea.

-Baina amaaaa -esan zuen Liranek- guri azalorea gustatzen zaigu!

-Badakit, alaba, baina...

Eta zuek, zer egingo zenukete gehien gustatzen zaizuen janaria prestatzen utziko ez balizute Jendeari probatzeko eskainiko zenikete, ala ez zenukete gehiago prestatuko, bizilagunekin arazorik ez izateko?

Bidaiak aurrera jarraitzen du, eta erabakiak hartu beharra dago... Hurrengo faserako aukeratu ahal izango duzue, hiru istorio hauen artean, nola nahi duzuen Truchez familiaren ozeanoko bidaiak jarraitzea.

A. ONDO BIZITZEA: BEHARREZKO DITUGUN GAUZAK LORTU

C. Olagarro jauna eta arroka arriskutsuak Truchez aitak aurkitu du azkenean lana, "Stella de Mare" jolas-parkean.

Gau horretan Truchez familia pozik dago, eta elkarrekin abesten dute, gauzak bide onetik doazela ematen baitu.

D. Baimenik gabe bizardzea Inti eta Wayra Lirainen bi lagun dira. Haien aipatu diote, lehen aldiz, Ozeanoan bizitzeko baimena behar dela. Gaez, Lirainek, jakin-nahiaren jakin-nahiaz, gurasoei galdetu die...

E. Agian itzuli egin beharko genuke Malkotxok hasperen egiten du ibaiari buruz pentsatzen duen bakoitzean. Egun batean jabetzen dira Truchez familiako guztiek gauza bera sentitzen dutela. Ozeanoa da bizi nahi duten lekua?

Neska-mutilok, badakizue zer den eskubide bat?

Ea guztion artean argitzen dugun. Idatziko al duzue zuen ustez eskubide bat zer den, hitz horren esanahia aurkitu ahal izateko?

Eskubide bat zera da:

Fasea 3: C aukera / D aukera / E aukera

Oso ondo!

Ikusi duzuen bezala, pertsona guztiok ditugu eskubide batzuk; adibidez, jateko eskubidea, etxebizitza izateko eskubidea, eskolara eta medikuarengana joateko eskubidea... Baina herrialde batzuetan zaila da eskubide horiek guztiak edukitzea. Horregatik, zenbait pertsonak beste leku batzuetara bizitzera joatea erabakitzen dute, jatekoa, eskolak, medikuak... edukitzeko. Ez dizue horrek gogorarazten Lirainen familiari gertatu zitzaiona?

Jarrai dezagun gure abenturarekin!

C. Olagarro jauna eta arroka arriskutsuak

Arratsalde batean, Olagarro jaunak, “Stella de mare” jolas-parkeko nagusiak, jolas-parkean lan egitea eskaini zion Trúchez aitari.

-Ederki -esan zuen aitak—. Nire familiarekin Ozeanora bizitzera etorri berri naiz, eta lan hau oso beharrezkoa zait. Eskerrik asko, Olagarro jauna.

Trúchez aita oso pozik itzuli zen etxera, eta familiari esan zion lan berri bat aurkitu zuela; gauzak ondo ateratzen hasi ziren seinale zen.

Gau hura zoragarria izan zen Trúchez familiaren etxean. Ibaiko kantak abestu zituzten, eta Lirain Malenkoniatsurekin oroitu zen. Haien etxearen kanpoaldetik barre algarak eta txaloak entzuten ziren.

Atera zen eguzkia Ozeanoko ur lodien artetik, eta Trúchez aita, ondo orraztuta, bere lan berrira abiatu zen.

Edozein gauza egiten hasten garen lehenengo eguna beti izan ohi da berezia; horregatik, pozik bota zituen “Eau d’ericò” bere lurrin gogokoenaren, tantatxo batzuk ere. Lurrin harekin gaztetan bezain eder sentitzen zen.

Lantokira iritsi zenean, Olagarro jauna, bere beso luzeekin, langileak talde txikietan antolatzen ari zen.

-Zu, jarri hemen.

-Zu. Jarri haren atzean.

-Zu, jarri beste leku horretan.

Trúchez aita bere txandaren zain geratu zen, eta Olagarro jaunak esandako ilaran jarri zen.


-Guk nora joan behar dugu? –galdetu zion Trúchez aitak aurrean zuen arrain bizardunari.

-Arrokak dauden lekura goaz -erantzun zion hark.

-Erotu egin zarete? Arroketara?????

-Bai –esan zuen marmoka batek- joan beharra dago, atrakzioak ondo ibil daitezen alga freskoak biltzera.

-Baina, baina, baina... hara bagoaz, agian arrantzatu egingo gaituzte, eta familia zaindu beharra daukat.



Hara bestea, baita nik ere! OIagarro jaunak familia zaintzeko acquak ematea nahi baduzu, badakizu zer egin behar den. Berak agintzen du hemen –esan zuen lagunak, buruarekin “goazen” keinua eginez.

Trúchez aita beldur zen, haserre sentitzen zen, eta tristura-sentimendu arraro bat zuen, egoera hain zailean egoteagatik. OIagarro jaunak ez zion jakinarazi hain lan arriskutsua zenik hura, eta ez zekien zer egin.

Zer egingo zenukete zuek Truchez aitaren lekuan?

ESKOLAKOIA: GUK EMANDAKO BUKAERA

Finally, dad Trutxez made a decision. He talk to the octopus and he told him that he wouldn't go to the rocks. Then he took his way home and he met the postfish. The post fish was too old and he was too tired, so he offered his job to dad Trutxez. Dad Trutxez accepted it very happily and that's why the family could get some acquas, so they lived happy for ever.

Azkenean , Trutxez aitak erabaki bat hartu zuen. Olagarroarekin hitz egin zuen eta arroketara ez zela joango esan zion. Orduan bere etxeko bidea hartu zuen eta postari arrainarekin topo egin zuen. Postaria oso nagusia zen eta oso nekatuta zegoen, honexegatik bere lana Trutxez aitari eskaini zion. Trutxez aitak poz-pezirik onartu zuen eta ondorioz Trutxez familiak acquak lortu zituen eta oso zoiontsu bizi izan ziren.

GUK AUKERATUTAKO

Papá Truchez hizo coliflor, los pescadores se fueron de las rocas por el olor, así los trabajadores pudieron coger todas las algas que necesitaban. Debido a su buena idea le nombraron jefe a papá Truchez y prometió que no mandaría a sus empleados nada que fuera peligroso para ellos. La familia Tuchez vivió muy contenta en el océano.

ESKOLAKOA: GUK EMANDAKO BUKAERA

TRUCHEZ AITAK HARA JOATEA ERABAKI ZUEN. HELDU ZENEAN LANEAN HASI ZEN, ARRANTZALEAK AGERTU ZIREN ETA TRUCHEZ AITAK, BELDURTUTA, ALDE EGIN ZUEN. ETXERA HELDU ZENEAN FAMILIAREKI HITZ EGIN ZUEN ETA BESTE LAN BAT BILATZEA PENTSATU ZUTEN. ASKO BILATU ONDOREN LAN BAT AURKITU ZUEN ETA ETXEAK EGITEN HASI ZEN. HANDIK AURRERERA ZORIONTSU BIZI IZAN ZIREN.

GUK AUKERATUTAKO

Papá Truchez tenía miedo de los pescadores, cada vez la barca se acercaba más y más y Papá Truchez tenía más miedo cada vez. Mocha se había enterado de que Papá Truchez estaba en peligro y tuvo una idea; avisó a la familia Truchez y a sus amigos y entre todos fueron a rescatarlo por que le habían pescado. Entre todos intentaron romper la red y al final Papá Truchez fue rescatado por su familia ,y los amigos estaban todos muy agotados y por la noche hicieron una fiesta. Los pececitos llamaron a las ballenas para que destruyeran el barco y vivieron muy felices y comieron perdices.

Don Pulpo le dio las aguas porque había hecho la misión

ESKOLAKOA: GUK EMANDAKO BUKAERA

Dad Truchez left his job because it was very dangerous. His family reassures him. Suddenly the neighbours realize that cauliflower was very good and they opened a restaurant. They were very good cooks and they became famous.

Truchez aitak lana uzten du oso arriskutsua delako. Bere familiak lasaitzen du. Bapatean bizilagunak konturatzen dira azalorea oso gosoa dela eta jatetxe bat zabaltzen dute. Oso sukaldari onak ziren famatuak izatera iritsi ziren.

GUK AUKERATUTAKO

Papá Truchez hizo coliflor, los pescadores se fueron de las rocas por el olor, así los trabajadores pudieron coger todas las algas que necesitaban.

Debido a su buena idea le nombraron jefe a papá Truchez y prometió que no mandaría a sus empleados nada que fuera peligroso para ellos. La familia Truchez vivió muy contenta en el océano

ESKOLAKOA: GUK EMANDAKO BUKAERA

Truchez aitak lan hori behar zuen,baina zegurtasun gehiagorekin. Orduan Olagarro jaunari esaten dio ea zergatik ez dituen ezpatarrainak laguntzaile moduan jartzen arrantzaleak datozenerako, eurei laguntzeko. Olagarro jaunak galdetzen dio: - Zertarako dira ezpatarrainak? -Arrantzaleak datozenerako, sareak apurtzeko. Olagarro jaunak baietz esan zion.Eta itsasora abiatu egin ziren acquen bila. Handik aurrera espatarrainekin pozik bizi ziren.

GUK AUKERATUTAKO

Truchez aitak lan hori behar zuen,baina zegurtasun gehiagorekin. Orduan Olagarro jaunari esaten dio ea zergatik ez dituen ezpatarrainak laguntzaile moduan jartzen arrantzaleak datozenerako, eurei laguntzeko. Olagarro jaunak galdetzen dio: -Zertarako dira ezpatarrainak? -Arrantzaleak datozenerako, sareak apurtzeko. Olagarro jaunak baietz esan zion.Eta itsasora abiatu egin ziren acquen bila. Handik aurrera espatarrainekin pozik bizi ziren

ESKOLAKOA: GUK EMANDAKO BUKAERA

Amaiera hau idatzi duzue: Truchez jaunak bi aukera ditu. Lan berri bat aurkitu edo arroketara lan egitera joan. Arroketara joatea erabaki du. Baina poliki poliki joango da, isil - isilik eta arrain handiagoeekin joango da. Besteek erakutsiko diote lana, bera berria delako. Algak hartu zituen bere lagunekin eta olagarro jaunak dirua eman zion. Bere familiarengana pozik joan zen.

ESKOLAKOA: GUK EMANDAKO BUKAERA

Azkenean, Truchez aita algak biltzera arroketara joan zen. Arroketan arrantzaleak zebiltzan eta harrapatu zuten. Truchez aitak zegoen otarrean zulo bat egin eta uretara egin zuen salto. Etxera joan zen eta familia asko poztu zen.